

Ordiziako Udala

2022SORD0006

**DIRULAGUNZAK
ORDENANTZA**

**EMATEKO ORDENANZA DE CONCESIÓN DE
SUBVENCIONES**

ZIOEN AZALPENA

Zuzenbidezko estatu sozial eta demokratiko modernoan ezin ukatuzkoa da dirulaguntzek duten garrantzia, eta edozein administrazioen gizarte- eta ekonomia politikan erabakigarria den tresna baten aurrean gaudela esan daiteke.

Ordiziako Udalean, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak toki entitate gisa aitortzen dizkion eskumenak egikaritze aldera, sustapen jarduerak eremu handia barneratzen du eta bereziki, dirulaguntzak emanda egikaritzen da jarduketa hau.

Ikuspegi ekonomiko batetik, dirulaguntzak gastu publikoaren mota garrantzitsu bat lirateke, eta horregatik, aurrekontu politikaren norabideetara egokitu behar da.

Administrazioaren ikuspegitik, dirulaguntzak interes orokorrekotzat jotzen diren jokabide zehatz batzuk sustatzeko teknika bat dira, eta are herri-intereseko jarduerak kudeatzeko Administrazio publikoaren eta partikularren arteko lankidetzaren prozedura bat.

Zentzu zabalean, dirulaguntza izaera juridiko eta ekonomiko anitzeko figura-multzoa barne hartzen duen kategoriatzat da, eta horregatik jarraipen eta kontrol eraginkor bat egin behar zaio.

Orain arte, Ordiziako Udalean indarrean egon da 2013ko urriaren 31ean Osoko Bilkurak onartutako Dirulaguntzen Ordenantza. Nolanahi ere, ordutik araudi aldaketa ugari eman dira, eta beraz, beharrezkotzat jo da aipatu araudia

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Una parte importante de la actividad financiera del sector público se canaliza a través de subvenciones, con el objeto de dar respuesta, con medidas de apoyo financiero, a demandas sociales y económicas y entidades públicas o privadas.


En el Ayuntamiento de Ordizia, para el ejercicio de las competencias que la Ley 2/2016 de 7 de abril le confiere como entidad local, la actividad de fomento tiene una importancia capital, y se canaliza fundamentalmente, a través del otorgamiento de las subvenciones.

Desde la perspectiva económica, las subvenciones son una modalidad importante de gasto público y por tanto, deben ajustarse a las directrices de la política presupuestaria.

Desde una perspectiva administrativa, las subvenciones son una técnica de fomento de determinados comportamientos considerados de interés general e incluso un procedimiento de colaboración entre la Administración pública y los particulares para la gestión de actividades de interés público.

Existe una gran diversidad de subvenciones de distinta naturaleza, y por lo tanto, deben ser objeto de un seguimiento y control eficaces.

Hasta ahora, en el Ayuntamiento de Ordizia ha estado vigente la Ordenanza reguladora de Subvenciones aprobada por el Pleno con fecha de 31 de octubre de 2013. En cualquier caso, desde entonces, se han producido diversos cambios



Ordiziako Udala

2022SORD0006

berrikustea, besteak beste, gardentasunaren, eraginkortasunaren, edota administrazio elektronikoen zenbait alderdi txertatzearen. Finean beraz, Ordenantza honen helburua administrazio jarduna eraginkorrago bihurtzea nahiz Ordiziako herritarren eskubideei erantzun egokia ematea da.

normativos y es por ello que se ha considerado conveniente revisar dicha normativa para introducir, entre otros, diversos aspectos relativos a mejorar la transparencia, eficiencia o la administración electrónica. En definitiva, el objetivo de la presente Ordenanza no es otra que conseguir una mayor eficiencia de la actividad administrativa así como dar respuesta a los derechos de los ciudadanos de Ordizia.

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1 Artikulua.- Helburua.

Ordenantza honen helburua da Ordiziako Udalak ematen dituen dirulaguntzen irizpideak eta emakida-prozedurak finkatzea, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, legearen garapenerako erregelamendua onartzen duenak, ezartzen dutena kontuan hartuta.

2 Artikulua.- Dirulaguntzen kontzeptua.

Dirulaguntza, Ordenantza honen ondorioetarako, Ordiziako Udalak pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko edozein xedapen da, eta baldintza hauek bete behar ditu:

- Ematea onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.
- Ematea helburu zehatz bati, proiektu bat egikaritzeari, jarduera bat egiteari, portaera berezi bat hartzeari lotuta egotea, egindakoak zein garatu beharrekoak izan, edo hainbat egoera aldi berean gertatzea, eta onuradunak ezarri diren betebeharrak material eta formalak bete beharko ditu.
- Diruz lagundutako proiektuak, ekintzak, jokaerak edo egoerak onura

TITULO I DISPOSICIONES GENERALES


Artículo 1.- Objeto.

La presente ordenanza tiene por objeto regular y fijar los criterios y el procedimiento de concesión de subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Ordizia, al amparo de lo que establece la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba su reglamento de desarrollo.

Artículo 2.- Concepto de subvención.

Se entiende por subvención toda disposición dineraria que realice el Ayuntamiento de Ordizia a favor de personas públicas o privadas y que cumpla los siguientes requisitos:

- *Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.*
- *Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.*



Ordiziako Udala

publiko edo herri-intereseko jarduera bat sustatzea edo xede publiko bat sustatzea helburu izatea.

Ordenantza orokor hau ez da kasu hauetan aplikatuko:


- Aplikatzekoa den zerga –edo sektore-araudiak araututako propioak ez diren dirulaguntzak (hobariak, salbuespenak).
- Zerbitzuaren funtzionamenduaren kontrapestazio gisa jasotzen dituen zerbitzu publiko baten emakidadun bati emandako diru-laguntzak.
- Udalak bitarteko soil gisa jokatzeko dueneko beste administrazio batzuek emandako dirulaguntzak.
- Udalaren ekarpenak erakunde hartzaileen jarduerak modu globalean diruz laguntzeko: Erakunde autonomoak; enpresa-erakunde publikoak; partzuergoak; mankomunitateak; fundazioak; elkarteak, e.a., non Udalak ordezkapena duen eta urtero laguntza ekonomikoak egiten dituen horien aurrekontuak diruz laguntzeko.
- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 5. xedapen gehigarrian (Udalen Federazioa eta Elkarteak) aipatzen dituen elkarten aldeko diru-laguntzak.
- Korporazioan ordezkaturako talde politikoaren funtzionamendu-gastuak artatzeko dirulaguntzak.
- Onuradunak aurrez eskatu gabeko emandako beka
- Premia handiko beharrentzako zuzenean ematen diren laguntza edo sorospenak, gizarte arazoei aurre egiteko asmoarekin.

2022SORD0006

- *Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública de interés local.*

La presente ordenanza no será de aplicación en los siguientes casos:

- *Subvenciones impropias reguladas por la legislación tributaria o sectorial aplicable (bonificaciones, exenciones).*
- *Subvenciones otorgadas al concesionario de un servicio público que las recibe como contraprestación del funcionamiento del Servicio.*
- *Subvenciones concedidas por otras Administraciones en las que el Ayuntamiento actúe como simple intermediario.*
- *Aportaciones del Ayuntamiento, destinadas a financiar globalmente las actividades de los entes receptores: Organismos autónomos; entidades públicas empresariales; consorcios; mancomunidades; fundaciones; asociaciones, etc. en los cuales está representada el Ayuntamiento y a los que anualmente, se hacen aportaciones económicas para financiar sus presupuestos.*
- *Subvenciones a favor de las asociaciones a que se refiere la disposición adicional 5ª de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases de Régimen Local (Federación y Asociación de Municipios).*
- *Subvenciones a los grupos políticos representados en la Corporación para atender sus gastos de funcionamiento.*
- *Becas no solicitadas previamente por la persona beneficiaria.*
- *Las ayudas o subsidios que se prestan directamente para necesidades de extrema necesidad, con el fin de hacer frente a problemas sociales.*



3. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia.

Dirulaguntzen emakida eta emailearen eta erakunde onuaradunaren arteko harreman juridikoa bai Udal Ordenantza honek bai dirulaguntzen lerro bakoitzaren oinarri bereziak eta emakidaren unean indarrean dagoen araudiak barne hartzen dituen bere eranskinak arautuko dituzte.

Ordenantza honetan eta oinarri berezietan aurreikusi ez den orotan azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, horren garapenerako Erregelamendua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aplikatuko dira.

Europar Batasunaren funtsen kontura finantzatzeko dirulaguntzei aplikagarri izango zaizkie kasu bakoitzean aplikagarri diren arau komunikatorioak eta haiek garatu edo txertatzen dituzten estatuko arauak. Ordenantza honetan jasotako emakida eta kontrol prozedurak izaera osagarri gisa aplikatuko dira Europar Batasunaren funtsen kontura finantzatzeko dirulaguntzei zuzenean aplikatu beharreko arauak dagokienez.

4. artikulua. Printzipio orokorrak.

Oro har, printzipio hauek gidatuko dute dirulaguntzen kudeaketa: publikotasuna, gardentasuna, lehiakortasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, jarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitu era erabiltzeko eraginkortasuna.

Artículo 3.- Normativa aplicable.

La concesión de las subvenciones y la relación jurídica entre el otorgante y la entidad beneficiaria se regirá por la presente Ordenanza Municipal y sus anexos en los que se contienen las bases específicas reguladoras de cada una de las líneas de subvención y demás normativa vigente en el momento de su concesión.


En todo lo no previsto en la presente Ordenanza y las bases específicas se aplicará la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, y resto de disposiciones que resulten de aplicación.

Las subvenciones financiadas con cargo a fondos de la Unión Europea se regirán por las normas comunitarias aplicables en cada caso y por las normas estatales de desarrollo o transposición de aquéllas. Los procedimientos de concesión y control de las subvenciones reguladas en esta Ordenanza tendrán carácter supletorio respecto de las normas de aplicación directa a las subvenciones financiadas con cargo a fondos de la Unión Europea.

Artículo 4. Principios generales.

Con carácter general, la gestión de las subvenciones estará presidida por los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación, eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados y eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.

Los procedimientos de concesión de



Ordiziako Udala

2022SORD0006

Ordenantza honetan araututako dirulaguntzak eta sariak emateko prozedurak administrazio sinplifikazio printzipioaren mende egongo dira.

5. artikulua. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Ordiziako Udalak dirulaguntzak ezarri aurretik, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan zehaztuko du zein helburu dituen dirulaguntzak aplikatuta, horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzeko baldintzarekin.

Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa Udaleko Osoko Bilkurak onartuko du. Oro har, hiru urteko indarraldia izango du, harik eta, modu arrazoituan beste epe bat ezartzea komenigarriagoa dela irizten bada.

Urtero egunerako da plana, eskura dagoen informazio garrantzitsuen arabera.

Planaren kontrola eta jarraipena urtero egingo da bi alderditan: kontrol ekonomiko-finantzieroa eta planaren kontrola eta jarraipena.

- Kontrol ekonomiko-finantzieroa, emandako dirulaguntzea; kontrol horren ardura Udaleko Kontuhartzaitzarena da eta indarrean dagoen legedian xedatutako baldintzetan egingo da.

- Planaren kontrol eta jarrapena, helburu honekin:

- Dirulagutza lerroak aldatzea eta eguneratzea.
- Zenbatekoak eguneratzea.
- Jarduketa-ildo berriak sartzea.

subvenciones y premios regulados en la presente Ordenanza serán presididas por el principio de simplicidad administrativa.

Artículo 5. Plan Estratégico de subvenciones.

El Ayuntamiento de Ordizia, con carácter previo al establecimiento de subvenciones, deberá concretar en el Plan Estratégico de Subvenciones los objetivos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

El Plan Estratégico Municipal de Subvenciones será aprobado por el Pleno Municipal. Con carácter general, tendrá una vigencia de tres años, salvo que, de manera motivada, sea conveniente establecer un plazo diferente.


Anualmente se realizará la actualización del plan de acuerdo con la información relevante disponible.

El control y seguimiento del presente Plan Estratégico de Subvenciones se realizará anualmente en dos vertientes: control económico-financiero y control y seguimiento del plan.

- Control económico-financiero de las subvenciones concedidas, que será responsabilidad de la Intervención Municipal, en los términos establecidos en la legislación vigente.

- Control y seguimiento del Plan con el objetivo de:

- *Modificación o actualización de las líneas subvencionales.*
- *Actualización de importes.*
- *Introducción de nuevas líneas de actuación.*



Planaren kontrol eta jarraipena egingo du dirulaguntza ematen duen sail bakoitzeko teknikari arduradunak. Hurrengo ekitaldiko lehen lauhilekoan justifikazio-memoria egingo da eta bertan zehaztuko dira lortu nahi diren helburuen betetze-mailari buruzko adierazleak eta balorazio orokorra, baita programa mantentzea edo ezabatzea komeni den ala ez.

Sail bakoitzeko teknikariak egindako memoria hau irizpide homogeneoekin landuko da eta modu bateratuan jasoko da.

6. artikulua. Dirulaguntzak emateko baldintzak.

Dirulaguntzak eman aurretik, jarraian zerrendatuko diren baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Organo administratibo emaileak eskuduntza izan behar du.
- b) Aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa egon behar du dirulaguntza ematearen ondorio diren eduki ekonomikoko obligazioei aurre egiteko.
- c) Dirulaguntza emateko dagokion prozedura izapidetu behar da, kasuan kasu aplikagarri diren arauekin bat etorrita.
- d) Eduki ekonomikoa duten egintza administratiboak aldeztu aurretik fiskalizatu behar dira, 32/2018 Foru Dekretuan, abenduaren 27koan, aurreikusitakoaren arabera.
- e) Organo eskudunak gastua onetsi behar du.

Aurreko baldintzez gain, ezinbesteko baldintza izango da, oro har, Ordiziako udalerriko lurralde eremuan kokatzea

El control y seguimiento del Plan se realizará anualmente por el técnico responsable de cada área que conceda la subvención. En el primer cuatrimestre del ejercicio siguiente se elaborará una memoria justificativa en la que se detallarán los indicadores sobre el grado de cumplimiento de los objetivos perseguidos y su valoración global, así como la conveniencia o no de mantener o suprimir el programa.


Esta memoria elaborada por el técnico de cada departamento se elaborará con criterios homogéneos y se recogerá de forma unificada.

Artículo 6. Requisitos para el otorgamiento de las subvenciones.

Con carácter previo al otorgamiento de subvenciones, se deberán cumplir los siguientes requisitos:

- a) *La competencia del órgano administrativo concedente.*
- b) *La existencia de crédito presupuestario adecuado y suficiente para atender las obligaciones de contenido económico que se deriven de la concesión de la subvención.*
- c) *La tramitación del procedimiento de concesión de acuerdo con las normas que resulten de aplicación.*
- d) *La fiscalización previa de los actos administrativos de contenido económico, en los términos previstos en el Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre.*
- e) *La aprobación del gasto por el órgano competente para ello.*

Además de los requisitos anteriores, será requisito imprescindible que el fin, objetivo, ejecución del proyecto, la realización de la



Ordiziako Udala

2022SORD0006

proiektuaren xedea, helburua eta betearazpena, jarduera edo jokaera. Diruz lagundutako egoerak Ordiziako udalerriko lurralde eremua gainditzen duen kasu berezietan berriz, baldintza izango da udal interesari onura egitea zuzenean edo zeharka; azken baldintza hau espedientearen behar bezala justifikatu beharko da, arrazoitutako txostenaren bidez, dirulaguntza eman aurretiaz.

Dirulaguntzak ezin izango dira, inola ere, liberaltasun hutsaren irizpideen arabekoak izan, halako erabakiak deusezak izango direlarik.

Ezin izango zaie dirulaguntzarik eman Ordiziako Udalarekin premiamendu prozeduraren bidez zorrak dituzten partikular edo entitateek. Era berean, ezin izango dira eman legean aurreikusi gabeko zerga-salbuespenak, ezta dirulaguntza posibleen kargura hartutako zorren minorazio edo kontraprestaziorik ere.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, ez banaka, ez beste administrazio publiko edo erakunde pribatuen laguntzekin batera.

Ezingo da dirulaguntzarik eman aurrekontu-estaldurarik ez badago, eta halaber, xedapen honen aurkako egintzak deusezak izango dira. Nolanahi ere, urte anitzeko dirulaguntzak eman ahal izango dira, baldin eta etorkizuneko urte bakoitzerako aurrekontu-zuzkidura nahikoa badago.

Ezingo da lehiakortasun askearen aurkako dirulaguntzarik eman Europar

actividad o comportamiento radique en el ámbito territorial del municipio de Ordizia. Excepcionalmente, la circunstancia subvencionada podrá exceder del ámbito del término municipal de Ordizia, debiendo beneficiar al interés municipal de forma directa o indirecta, condición ésta última que deberá quedar suficientemente justificada en el expediente, previo informe motivado, con carácter previo a su concesión.


En ningún caso las subvenciones podrán responder a criterios de mera liberalidad, siendo nulos los acuerdos que las otorguen.

No podrán concederse ayudas económicas a los particulares o entidades que se hallen incursos en procedimientos de cobro por vía de apremio de deudas contraídas con el Ayuntamiento de Ordizia. Tampoco podrán otorgarse exenciones fiscales no previstas en la ley, ni podrán realizarse contraprestaciones o minoraciones de deudas contraídas con cargo a posibles subvenciones.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aislada o conjuntamente con otras ayudas de otras Administraciones públicas o instituciones privadas, supere el coste de la actividad a desarrollar por la persona beneficiaria.

No podrán otorgarse subvenciones que carezcan de la correspondiente cobertura presupuestaria, siendo nulos los actos que contravengan esta disposición. No obstante lo anterior, podrán concederse subvenciones con carácter plurianual siempre que las anualidades futuras queden condicionadas a la existencia de dotación presupuestaria.

No podrán otorgarse subvenciones contrarias a la libre competencia de



Ordiziako Udala

2022SORD0006

Batasuneko Zuzenbideari jarraiki.

acuerdo con el Derecho de la Unión Europea.

Era berean, ezinbesteko baldintza izango da agiri, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista baliatzea, estereotipo sexistak edo emameen bereizkeria eragin dezaketen irudi oro saihestea eta honako balio hauek sustatzea: berdintasuna, presentzia orekua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero-eginkizunen eta identitateen aniztasuna.

De la misma manera, será requisito imprescindible que toda la documentación, publicidad, imagen o materiales empleen un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidad de género.

6. artikulua.- Dirulaguntzen izaera.

Artículo 6.- Carácter de las subvenciones.

Ordenantza orokor honek araututako dirulaguntzek borondatezko izaera dute, ez dute ondorengo urteetarako beste dirulaguntza batzuk lortzeko eskubierik sortzen (urte anitzeko gastu gisa eman ezean), eta ezin dira aurrekari gisa alegatu.

Las subvenciones reguladas por la presente Ordenanza General tienen carácter voluntario, no generan ningún derecho a la obtención de otras subvenciones en años posteriores (salvo que se hayan concedido con carácter de gastos plurianuales) y no se pueden alegar como precedente.

Dirulaguntzak emakidak baldintza gisa duen interes orokorreko helburua betetzeari atxikita daude eta itzulezinak dira, emakidaren unean ezarritako baldintza eta kargak ez betetzeari atxikitako itzulerari kalterik egin gabe.

Las subvenciones están sujetas al cumplimiento de la finalidad de interés general a que se condicione el otorgamiento y tienen carácter no devolutivo, sin perjuicio del reintegro inherente al incumplimiento de las condiciones y cargas impuestas en el acto de concesión.

Edozein kasutan, Udala libre geratuko dira diruz lagundutako pertsonak edo erakundeek egin behar dituzten jardueretatik sortutako erantzukizun zibiletatik eta merkataritzako, laneko edo edozein motako erantzukizunetatik.


En cualquier caso, el Ayuntamiento quedará de cualquier responsabilidad civil, mercantil, laboral o de cualquier clase derivada de las actuaciones a que queden obligadas las personas o entidades subvencionadas.

7. artikulua. Persona edo entitate onuradunak.

Artículo 7. Personas o entidades beneficiarias.

Dirulaguntzaren onuraduntzat joko dira horien egilespeña sorrarazi zuten

Tendrá la consideración de beneficiario de subvenciones la persona o entidad que haya de realizar la actividad que



Ordiziako Udala

2022SORD0006

jarduera gauzatu behar duen, edo emakida legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona edo erakundea.

Elkartek eta fundazioek, dirulaguntzen onuradun izateko, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko dute.

Onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, ondasunerkidegoak edo, nortasun juridikorik ez izan arren, proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzakeen, edo dirulaguntzaren emakida sortzen duen egoeran dagoen edozein ekonomia-unitate mota, beti ere deialdi bakoitzean aurreikusten bada.

Dirulaguntza horien emakida ezin eskuratuko dute, indarrean den araudiari jarraiki, eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonak edo erakundeek. Halaber, ezingo dituzte dirulaguntzak lortu behin betiko ebazpen bidez eskubide hori ebazpenak erabakitako epean galtzera zigortutakoek ere, edo Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenek.

Zigor edo administrazio arloko zigorra jaso duten, eta horren ondorioz, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu duten edo horretarako ezgaitzen duen lege-debeku baten eraginpean dauden pertsonak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko lege-debekuak barne, ezin izango dute agindu honetan araututako dirulaguntzen eta laguntzen deialdietara aurkeztu, zigorrak ezarritako


fundamentó su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima la concesión.

Las asociaciones y fundaciones para poder ser beneficiarias de subvenciones tendrán que estar inscritas en el correspondiente registro oficial.

Podrán acceder a la condición de beneficiario las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la subvención siempre que se prevea en cada una de las convocatorias.

No podrán acceder a la concesión de estas subvenciones aquellas personas o entidades que, en virtud de la normativa vigente, tengan limitado o suprimido ese derecho. Asimismo, no podrán obtener subvenciones quienes hayan sido sancionados, por resolución firme, con la pérdida del derecho por el plazo que determine la resolución o se encuentren en cualquiera de los otros supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

No podrán concurrir, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, a las convocatorias de las subvenciones y ayudas reguladas en esta ordenanza, las personas sancionadas penal o administrativamente, con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o estar incurso en prohibición legal que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.



aldian.

8. artikulua. Persona edo entitate onuradunen eskubide eta betebeharrak.

Pertsona edo entitate onuradunek badaukate emandako zenbatekoa kobratzeko eskubidea, dirulaguntzari dagokion deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako baldintzetan.

Ordenanza espezifikoek, deialdiek, hitzarmenek edo emakida-ebazpenek jasotzen dituzten berariazko obligazioak kontuan hartu gabe, Ordiziako Udalaren dirulaguntzen onuradunek hurrengo betebeharrak izango dituzte:


- a) Dirulaguntzen emakida sortu duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izan.
- b) Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean eskakizunak eta baldintzak justifikatu, jarduera egin, eta dirulaguntzaren emakidak edo gozamenak zehazten duten xedea bete.
- c) Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortu.
- d) Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta lagundu, indarrean den araudiaren baldintzetan, eta baita kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen –eta kontrol-jardunen mende aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekarrita.
- e) Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta

Artículo 8. Derechos y obligaciones de las personas y entidades beneficiarias.

Las personas o entidades beneficiarias tienen derechos al cobro de la cantidad concedida en los términos y condiciones que se hayan establecido en la respectiva convocatoria, convenio o resolución de concesión.

Sin perjuicio de las obligaciones específicas que recojan las ordenanzas específicas, las convocatorias, los convenios o resoluciones de concesión, serán obligaciones generales de las beneficiarias de las subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia, las siguientes:

- a) *Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.*
- b) *Justificar ante el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinene la concesión o disfrute de la subvención.*
- c) *Obtener cuantas autorizaciones seran precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.*
- d) *Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.*
- e) *Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión*



Ordiziako Udala

2022SORD0006

Ordiziako Udalarenak egunean dituela egiaztatu.

que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y del Ayuntamiento de Ordizia.

Udalak zuzenean bilduko ditu aipatutako alderdiak (edo dirulaguntza lerro bakoitzaren oinarri espezifikotan eskatu daitezkeen beste batzuk) egiaztatze behar dituen eta sektore publikoko erakundeen esku dauden datuak, eskatzaileak berariaz aurka egiten ez badu behintzat. Kasu horretan, egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

El Ayuntamiento recabará directamente los datos en poder en las entidades del sector público que necesite para acreditar los extremos mencionados u toros que puedan exigirse en las bases específicas de cada línea de subvención, salvo que la solicitante se oponga expresamente. En este caso, deberá aportar la documentación acreditativa.

Udalaren zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatze, Udalak berak emango du ziurtagiria, espedienteari erantsiko zaiona.


Para la acreditación de la obligación de estar al corriente de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Ordizia, la propia entidad local emitirá una certificación, la cual se incorporará al expediente.

Eskatzaileek, dirulaguntza eskatzean, ebazpen proposamenaren unean edo ordainketa bate egin aurretik ez badauzkate egunean udal zerga-billetako obligazioak, Firu Ogasunari edo Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak, 10 egun emango zaizkie betekizun hori egunean dutela egiaztatze.

A las solicitantes que en el momento de la solicitud de subvención, de dictarse la propuesta de resolución o de realizarse un pago no se encuentren al corriente del cumplimiento de sus obligaciones con la recaudación municipal, la Hacienda Foral o la Seguridad Social, se les concederá un plazo de 10 días para acreditar estar al corriente en dicho cumplimiento.

f) Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritza eta sektore legeriak eskatutako baldintzetan behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak eduki, eta baita diru-laguntzen oinarri bereziek egiaztapen eta kontrol-ahalmenen jardun egokia bermatzeko eskatzen dituzten kontabilitate egoerak eta berariazko erregistro guztiak ere.


f) *Disponer de libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases específicas de las subvenciones con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.*



Ordiziako Udala

2022SORD0006

- g) Jasotako fondoan aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardunen aztergai izan daitezkeenez, lau urteko epean gorde.
- h) Organo emaileari, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazional zein nazioartekotatik diruz lagundutako jardura finantzatzeko duten beste dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana jakinarazi.
- i) Dirulaguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein gertaera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi.
- j) Ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzultzeari ekin.
- k) Diruz lagundutako jardueraren hedapen-ekintzetan, jasota geratu beharko du Ordiziako Udalaren edo bere erakunde autonomoaren dirulaguntza bidezko lankidetzak.
- l) Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.
- m) Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igarritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jardura egin dela justifikatzerakoan egiaztatuko beharko da.
- n) Pertsona onuradunak aplikatzekoa
- g) *Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de cuatro años.*
- h) *Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.*
- i) *Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.*
- j) *Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos previstos en la presente ordenanza.*
- k) *En las acciones de difusión de la actividad subvencionada deberá hacerse constar la colaboración, mediante subvención, del Ayuntamiento de Ordizia o su organismo autónomo.*
- l) *En el ejercicio de la actividad se observará el debido respeto a los derechos fundamentales de la persona y se respetará la legalidad vigente.*
- m) *La entidad beneficiaria deberá redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales los escritos, anuncios, avisos y demás comunicaciones que publiquen en la actividad subvencionada, debiendo proceder de igual manera con la publicidad, bien sea oral o escrita. Asimismo, los mensajes emitidos por megafonía en actos concretos deberán transmitirse en euskera o en las dos lenguas oficiales. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse al justificar la realización de la actividad subvencionada.*
- n) *La persona beneficiaria deberá respetar cuanta normativa vigente le resulte de*



Ordiziako Udala

2022SORD0006

zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du; eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legea.

aplicación. En especial, la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y de Hombres.

9. artikulua. Entitate laguntzaileak.

Artículo 9. Entidades colaboradoras.

Honako hauek izango dira entitate laguntzaileak: dirulaguntzarekin loturiko ondorio guztietarako Ordiziako Udalaren izenean eta beren kontura arituz, pertsona onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietenak, edota jasotako funtsak aldez aurretik eman eta banatu gabe dirulaguntzaren kudeaketan laguntzaile dihardutenak. Funts horiek ez dira inola ere erakundeon ondarearen parte izango.

Será entidad colaboradora aquella que, actuando en nombre y por cuenta del Ayuntamiento de Ordizia, entregue y distribuya los fondos públicos a las personas o entidades beneficiarias, o colabore en la gestión de la subvención sin que se produzca la previa entrega y distribución de los fondos recibidos. Estos fondos, en ningún caso, se considerarán integrables de su patrimonio.

Ezin izan daitezke entitate laguntzaileak DLOren 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritako egoeraren batean daudenak eta egiaztatu behar dute ez daudela egoera horietan sartuta.

No podrán obtener la condición de entidad colaboradora aquellas entidades que estén incursas en alguna de las circunstancias establecidas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la LGS, debiendo acreditar que no están incursas en las mismas.

Entitate laguntzailetzat hartu izan ahal izateko kaudimen eta eraginkortasunari buruzko baldintzak izango dira kontuan. Erakunde laguntzaileak zuzenbide pribatuaren mendeko pertsonak direnean publikotasun, lehiakortasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen araberrako prozedura baten bidez hautatuko dira, eta hitzarmen baten bidez formalizatuko da lankidetzatza.


Las condiciones de solvencia y eficacia para poder ser considerada entidad colaboradora serán las que se establezcan en el procedimiento de selección de las mismas. En el supuesto de que las entidades colaboradoras sean personas sujetas a derecho privado se seleccionarán previamente mediante un procedimiento sometido a los principios de publicidad, concurrencia, igualdad y no discriminación y la colaboración se formalizará mediante un convenio.

10. artikulua. Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Artículo 10. Financiación de las actividades subvencionadas.

Izaera orokorrarekin, diruz lagundu beharreko proiektua edo jarduera, zeina pertsona edo entitate onuradunak aurkeztu beharko duen, edo gerora egindako proiektu edo jarduera horien

Con carácter general, el presupuesto del proyecto o de la actividad a subvencionar presentado por la persona o entidad solicitante, o sus modificaciones posteriores, servirá de referencia para la



aldaketak, erreferentziako izango dira dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko, zenbateko hori kalkulatzeko egongo delarik proiektu edo jardueraren azken konstituzioaren portzentaia baten moduan. Kasu horretan, Ordiziako Udalak egindako balizko funtziatzaioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentaia erreferentzia gisa harturik, bat etorrita dirulaguntza erregulatzeko araudiarekin eta ordenantza, deialdi, hitzarmen edo emakida-ebazpen espezifikoaren baldintzekin. Hala ere, dirulaguntzaren izatearen, helburuen edo lortu nahi dituen xede sozialen arabera, ekarpen publikoa zenbateko zehaz bat izan daiteke –kostu osoaren portzentaia edo zati bati erreferentziarik egin gabe-; kasu horretan, ulertuko da diruz lagundutako jarduerak osorik exekutatzeko behar den finantziaketaren diferentzia pertsona edo entitate horren kontura gelditzen dela, eta bere kasuan, finantziaketa publikoa udalari itzuli beharko zaio, jarduketaren kostu osoa gaitzen duen kopuruari dagokionean.

11. artikulua.- Finantziatzaioaren muga, bateragarritasuna eta aldi berekotasuna beste dirulaguntza batzuekin.

Ordiziako Udalak araudi hau betez emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek.


Aurreko kasuan, onuradunak jakin bezain laster jakinarazi beharko dio organo emaitzari dirulaguntza, laguntza diru sarrera edo baliabide horiek lortu izana, eta nolahi ere, jasotako funtsei

determinación final del importe de la subvención, pudiendo calcularse éste como un porcentaje del coste final del proyecto o actividad. En este caso, el eventual exceso de financiación por parte del Ayuntamiento de Ordizia se calculará tomando como referencia la proporción que alcance dicha aportación respecto del coste total, de conformidad con la normativa reguladora de la subvención y las condiciones de la ordenanza específica, convocatoria, convenio o resolución de concesión. No obstante, en función de la naturaleza y objetivos o fines sociales perseguidos por la subvención, la aportación pública podrá consistir en un importe cierto –sin referencia a un porcentaje o fracción del coste total-, en cuyo caso se entenderá que queda de cuenta de la persona o entidad beneficiaria la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la actividad subvencionada, debiendo ser reintegrada, en su caso, la financiación pública por el importe en que la misma exceda del coste total de dicha actividad.

Artículo 11.- Límite de la financiación, compatibilidad y concurrencia con otras subvenciones.

Las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Ordizia, en virtud de la presente normativa serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados.

En el supuesto anterior, la persona beneficiaria deberá comunicar al órgano concedente la obtención de las citadas subvenciones, ayudas ingresos o recursos que financien las actividades



Ordiziako Udala

2022SORD0006

emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

subvencionadas tan pronto como se conozcan y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

Udalak emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz, bakartuta zein beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, erakunde onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

El importe de las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el costo de la actividad subvencionada a desarrollar por la entidad beneficiaria.

II. TITULUA DIRULAGUNTZEN PROZEDURA ETA KUDEAKETA

TITULO II PROCEDIMIENTO Y GESTIÓN DE LAS SUBVENCIONES

12. artikulua.- Dirulaguntzak emateko prozedurak

Artículo 12.- Procedimiento de concesión.

Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka bidezkoa izango da. Prozedura horretan aurkezturiko eskabideen erkaketa egin behar da beren arteko lehenetasunak ezartzeko, ordenantza espezifikoa aldez aurreikusitako balorazio irizpideen arabera, dirulaguntzak balorazio altuena lortu duten eskabideei eman dakizkien, kreditu baliagarrien barruan eta deialdian fikaturiko mugak errespetatuz beti ere. Hala eta guztiz ere, ez da beharrezkoa izango lehenetasun orden bat finkatzea baldin-eta deialdian jasotako kreditua nahikoa bada, behin aurkeztutako epea bukatutakoan, ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskabide guztiei aurre egiteko.


El procedimiento ordinario de concesión será el de concurrencia competitiva. En este procedimiento se debe proceder a la comparación de las solicitudes presentadas al objeto de establecer una prelación entre las mismas, de acuerdo con los criterios de valoración previamente fijados en la ordenanza específica, de manera que se concedan, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, a aquellas que hayan obtenido mayor valoración. No obstante, no será necesario fijar un orden de prelación en el caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente para atender, una vez finalizado el plazo de presentación, todas las solicitudes que reúnan los requisitos establecidos.

Ezin izango da deialdian zehazten dena baino zenbateko handiagoko dirulaguntzarik eman.

No podrán otorgarse subvenciones por cuantía superior a la que se determine en la convocatoria.

Dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal

Podrán concederse de forma directa las



izango dira:

- a) Ordiziako Udalaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudena, dirulaguntza emateko hitzarmen edo akordioetan aurreikusitakoaren arabera.
- b) Ematea bera edo zenbatekoa lege mailako arau batek ezarrita duten dirulaguntzak, laguntza bakoitzari buruzko arau berariazkoiei jarraituz aplikatu behar den prozedura baliatuko baita halakoak emateko.
- c) Salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikatutako bste arrazoi batzuegatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudeneko dirulaguntzak.

1. ATALA

Dirulaguntza norgehiagokako erregimenean ematea

13. artikulua. Prozeduraren hasiera.

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko prozedura ofizios hasiko da beti, udal Kontuhartzaitzak txostena egin ondoren ordenantza honetan edo ordenantza espezifikoa zehaztutako órgano eskudunak onarturiko deialdiaren bitartez, eta deialdian garatuko da deitutako dirulaguntzak emateko prozedura, Ordenantza honekin bat etorrita nahiz DLOean eta garatzeko Araudian ezarritakoaren arabera, baita aplikagarri den Ordenantza espezifikoa araututakoarekin ere.

Dirulaguntzen deialdiak denbora nahikoarekin argitaratu beharko dira per

siguientes subvenciones:

- a) *Las previstas nominativamente en el Presupuesto General del Ayuntamiento de Ordizia.*
- b) *Aquellos cuyo otorgamiento o cuantía venga impuesto por una norma de rango legal, que seguirán el procedimiento de concesión que les resulte de aplicación de acuerdo con su propia normativa.*
- c) *Con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.*


SECCIÓN 1ª

Concesión en régimen de concurrencia competitiva

Artículo 13. Iniciación del procedimiento.

El procedimiento para la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva se iniciará siempre de oficio mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente determinado en esta ordenanza o en la ordenanza específica, previo informe de la Intervención municipal, que desarrollará el procedimiento para la concesión de las subvenciones convocadas de conformidad con la presente Ordenanza, la LGS y demás normativa de desarrollo, así como en lo regulado en la Ordenanza específica que sea de aplicación.

Las convocatorias de subvenciones habrán de publicarse con la antelación



Ordiziako Udala

2022SORD0006

tsona edo entitate onuradunak behar adinako denbora eduki dezan jarduera eraginkortasunez garatzeko eta ondorengo justifikazioa egiteko. Beharrezkoa bada, aurreko aurrekontu-ekitaldian emango zaio hasiera espedienteari.


suficiente para que la persona o entidad beneficiaria pueda disponer del tiempo necesario para el desarrollo eficiente de la actividad y subsiguiente justificación, iniciándose la tramitación del expediente si fuera necesario en el ejercicio presupuestario anterior.

Deialdiak honako eduki hau izango du ezinbestez:


La convocatoria tendrá necesariamente el siguiente contenido:

- a) Adieraziko da zein osoko bilkuratan hartutako erabakiz onartu diren eta zein aldizkari ofizialetan dauden argitaratuta Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokor hau eta deialdiaren oinarri-arautzaileak onartu dituen Ordenantza espezifikoak.
- b) Dirulaguntza egozteko aurrekontu kredituak eta partida, eta deialdiko dirulaguntzen gehienezko zenbateko osoa zein diren, kreditu baliagarrien barruan, edo, halakorik zehaztu ezean, kalkulatu den zenbatekoa.
- c) Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua zein diren.
- d) Adieraziko da dirulaguntza norgehiagokako erregimenean ematen dela.
- e) Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta haiek egiaztatze modua.
- f) Adieraziko da dirulaguntza eskatzen duen pertsonak aukeratu dezakeela kudeaketa-organoari baimena ematea, organo horrek eskatzailea zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoelako ziurtagiria edo egiaztatzea eskura dezan
- g) Balorazio-batzordearen osaketa.

- a) *Indicación del acuerdo plenario por el que se aprueban y del diario oficial en que están publicadas la presente Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento y la Ordenanza específica que apruebe las bases reguladoras de la convocatoria.*
- b) *Créditos y partida presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones convocadas dentro de los créditos disponibles o, en su defecto, cuantía estimada de las subvenciones.*
- c) *Objeto, condiciones y finalidad de la concesión de la subvención.*
- d) *Expresión de que la concesión se efectúa en régimen de concurrencia competitiva.*
- e) *Requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.*
- f) *Indicación de la posibilidad de que la persona solicitante de la subvención opte por autorizar al órgano gestor para que éste pueda recabar el certificado o documento acreditativo de estar al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.*
- g) *Composición de la comisión de*



- h) Eskabideak aurkezteko epea eta tokia. Epea izango da 20 egun baliodunekoa, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, deialdian epe hori baino handiago bat jartzen ez bada.
 - i) Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiri eta informazioak.
 - j) Ebazpena eman eta jakinarazteko epeak, baita argitaratzeko moduak ere.
 - k) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak, eta, bere kasuan, irizpide horien haztapena.
 - l) Adieraziko da, hala badagokio, diru-laguntza emateko ebazpenak jaso ahal izango duela onuradun izateko baldintzak beteta ere deialdian finkatutako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik onartu ez diren deialdien zerrenda ordenatu bat, aditzera emanik deialdi horietako bati emandako puntuazioa eta, hala badagokio, hurrengo deialdian lehentasuna izateko aukera dutela edo, dirulagun tzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek eskatutako zenbatekoen batura deialdiaren helburuko zenbatekoa baino handiagoa denean, zenbateko hori onuradunen artean hainbanatu dadila aurreko atalen arabera doitutako proiektuen aurrekontuen edo onartutako programen proportzioan, betiere dirulaguntzaren baldintzak, helburu eta xedea aldatzen ez badira. Hala eta guztiz ere, onuradun edo proiektu bakoitzak *valoración.*
- h) *Plazo y lugar de presentación de solicitudes. El plazo será de 20 días hábiles a partir del siguiente al de la publicación de la convocatoria, salvo que en la misma se fije uno superior.*
 - i) *Documentos e informaciones que deben acompañarse a la solicitud.*
 - j) *Plazos de resolución y de notificación, así como los medios de publicación-*
